

pijama *Festa*

Maren

Luke Lewisen
jarraitzaile
sutsua da

Jen Jones

desclée



Maren Melissa Taylor

Maren nortasun handiko neska dela esan daiteke: lotsagabe samarra, energiaz betea, eta beti du prest erantzun azkar bat.

Egunen batean aktore edo umorista izan nahi du eta Hollywoodera joan nahi du izar bihurtzeko. Modak ez du gehiegi kezkatzen; are gehiago, Marenen ohiko uniformeak honakoa da: bakero pare bat, kirol-kamiseta bat eta txanoa duen kirol-jertse bat. Alaba bakarrik denez, bere lagunak ahizpa bezala adoptatu ditu.



Willow Marie Keys

Pazientzia handikoa eta atsegina, Willow konfiantzazko lagun bikaina da. (Galdetu bere neba bikiari!). Gainera, sormen handiko artista bat da. Argi dago egun batean denda bat edukiko duela eta egiten duen guztia salduko duela han. Familia hippy samarra duenez, Willowek estilo aski bohemioa du, baina guztiz bat dator barruan duen ume alaiarekin.



Delaney Ann Brand

Delaney azkarra eta gogotsua da... eta beti dago saltsaren batean sartuta! Animalien babeslekuan boluntario-lanetan edo Mareni etxeko lanekin laguntzen ari denean ere, beti konta dezakezu Delaneyrekin. Normalean, Delaney mototsarekin eta bakeroekin aurkituko duzu (eta, jakina, bere lagun min bakoitza sinbolizatzen duten zintzilikarioak dituen eskumuturreko bereziarekin).

Eredu ezin hobea da bere ahizpa gaztearentzat.



Ashley Francesca Maggio

Ashley familia italiar alai bateko kiderik txikiena da. Bere neba eta ahizpa nagusiek (Josie, Roman, Gino eta Matt) gauza mordoa irakatsi diote, besteak beste berarena bezalako familia handi batean arreta nola erakartzen den, eta Ashley benetan trebea da horretan. Blogari modazale honek estilo eta joera berri guztien berri du eta mundu guztiari kontatzen dio bere blogean (Magstar izenekoa). Ashley alaia eta bihurria da, eta oso gutxitan ikus daiteke bere "poltsako txakurtxo" gabe, Coco.



Lehenengo atala

Nire amaren marra zuri-gorridun kapela erraldoia bera baino lehenago agertu zen izkinatik. Beti lortzen du niri irribarre bat ateratzea.

—Zorionak, gaur zure “urteerdibetetzea” da, *Doraemaren!*
—esan zidan, zeraman tarta okertuz, laurok ikus genezan bere sorkuntza txalogarria.

Tarta erdia zenez, erraza zen barruko geruza koloretsuak ikustea: txokolatea, belus gorria eta banilla. Benetan zen harrigarria; izan ere, nire ama ez da oso trebea sukaldaritzakontuetan. Tartaren goiko aldean, izar formako kandela



batek dir-dir egiten zuen “Maren izar bat da!” zioen testuaren gainean.

Ashley zutitu egin zen eta besoak orkestra bat zuzentzen ariko balitz bezala mugitzen hasi zen.

—*Zorionak, zure urte...*

—ERDI! –oihukatu zuten Delaneyk eta Willowek aho batez, hark guztiak zentzurik ez zuelako barreka.

—... *betetzean. Zorionak, ta urte (ERDI!) askotarako. Zorionak, belarritik tiratzean. Zorionak, ta muxu bat, zuretzako, Maren!* –denek kantatzen bukatu zutenean eta txaloka hasi zirenean, irribarre egin nuen. Une hura, melenga zen arren, gogoratzeko modukoa zen.

—Eskatu desio bat, Maren! –animatu ninduen Willowek, ile-xerlo horail bat belarriaren atzean jartzen zuela–. Agian egia bihurtuko da.

—Beno, erraza da –erantzun nion, irribarretsu–. Luke Lewisen emaztea izan nahi dut eta Lukek nire bizitza osoan goizero eta gauero serenatak kantatzea.



—Ez esan zure desioa ozenki, bestela ez da egia bihurtuko
—esan zidan Delaneyk.

—Berdin zait. “Luke Lewisen emaztea” ozenki esan
behar den zerbait da —esan nuen amets egiten ari banintz
bezala.

Aurrerantz makurtu nintzen, eta keinu arranditsu batekin,
kandela itzali nuen. Neskek barre egin zuten, eta nire amak
begiak zuri jarri zituen.

Ez badakizu nor den Luke Lewis, argi dago ez duzula
irratia entzun, ez zarela YouTuben ibili eta ez duzula aldizkari
ezagunik irakurri aspaldi-aspaldian.

Luke Lewis gitarra-zorroa beti aldean daraman eta
ilea hipster-en moduan orrazten duen pop kantaririk
zoragarriena da. Eta badakizu zer den onena? Luke Valley
Viewen jaio zela. Gure hirian! Bai, are gehiago, gure bigarren
hezkuntzako eskolan ikasi zuen. Nire mahaia Lukek erabili
zuen bera dela pentsatzea gustatzen zait. Aizu, amets egitea
dohainik da!



—Zer iruditzen zaizu DBHko lehenengo maila bukatzen baduzu pop izar batekin ezkontzeko ihes egin baino lehen? —esan zidan amak txantxetan. Tarta hartu eta sukaldera eramane zuen, guztiontzako zatiak mozteko.

—A, horrek gauza bat gogorarazi dit —esan zuen Ashleyk, eskua bere poltsa marradun handira sartuz—. Baliteke ez izatea ezkontza-paper bat bezain ona, baina gauzatxo bat dut zuretzat.

Orduan paper tantodun batekin bildutako laukizuzen formako opari bat eman zidan. Amen batean ireki nuen, eta barre egin nuen barruan zegoena ikusi nuenean. Luke Lewisen eta bion argazki bat zeukan iman bat zen! Ashleyk gure eskolako dantzaldiko argazki bat hartu zuen, eta Photoshop erabiliz, nire gorputza eta Lukerena elkarren ondoan jarri zituen Lukek alfonbra gorrian atera zuen argazki bat erabiliz.

—Ash, bikaina da! —esan nion, eta nire bularraren parean jarri nuen, Delaneyk eta Willowek ikus zezaten—. Honek



azken ukitu paregabea emango dio nire eskolako armairuari.

Ala nire “armaiLukea” dela esaten hasi beharko genuke?

Ashleyk barre egin zuen nire txantxa eskasa entzutean.

—Romanek Photoshop erabiltzen lagundu zidan –esan zidan–. Badirudi neba nagusi mordoa izatea batzuetan erabilgarria ere badela.

Ash familia italiar handi bateko bost seme-alaben arteko gazteena da, eta bere ahizpa Josie unibertsitatera joan zenetik bera da etxeko neska bakarra. Horren neska pinpirina izanda, Ashleyk askotan sentitzen du mutil gehiegi dituela inguruan. Baina, esan zuen bezala, abantaila ugari dauzka, hala nola mutil helduagoak ezagutzea.

—Nire txanda –esan zuen Willowek, eta kanpoan *M* apaindu bat zeukan poltsa bat eman zidan. Ziur nengoen berak apaindu zuela. Benetan da trebea eskulanean kontuan. Beti harritzen nau.

Eskuz trikotatutako tableta-zorro polit bat zen, eta sigi-saga egiten zuten marrak zeuzkan. Baina ongi



ikusteko aukera izan baino lehen, Ashleyk eskutik kendu zidan.

—Benetan? —esan zuen harrituta—. Wills, hau sinestezina da. Niri ere bat egin behar didazu nire urtebetetze-egunerako. Edo urteerdibetetzera. Edo edozein egunetarako.

Sinestezina zen, benetan, baina ez nuen gutxiago espero. Willow gorri-gorri jarri zen, eta besarkada bat eman nion.

—Eskerrik asko, neska —esan nion—. Onena zara! Nire tableta ni baino hobeto jantzita egongo da!

Delaneyren txanda iritsi zen. Pixka bat lotsatuta zirudien.

—Aurrekoekin alderatuta, hau ez da hain polita, baina tori!

Motxilatik kaxa bat atera zuen eta eman egin zidan.

—Barkatu, baina ez dut opari-paperez biltzeko astirik izan. Gaur animalien babeslekuan izan naiz —Delaneyk boluntario gisa egiten du lan Valley Vieweko Animalien Babeslekuan, eta han aurkitu zuen bere txakurtxo maitagarria, Frisco. Frisco edonor txakurzale bihurtzeko gai da!